

## Neguko giroa San Blas azokarako



Euria iragarrita dagoen arren, jendetza espero dute antolatzaileek domekarako Abadiñon. Bestek beste, 95 ekoizle eta 250 abelburu izango dira San Blas azokan. • 2-3



## Galdeketa egin arte, estazioko plana etetea onartu dute

**Durango** | Erabaki plataformak aurkeztutako mozioa babestu du udalbatzak, PSE-EEen iritzi haustura gertatu eta gero. Beraz, kontsulta egin arte, estazioko plana etetea mandatu dauka udalak. Oztopo garrantzitsu bat izan daiteke, ETSk diseinatu eta gobernu taldeak onartu zuen planaren bidean. Bitartean, udalean batzorde berezia sortu dute galdeketa antolatzeko, oraindik datarik jarri ez duten arren. • 5

## Bost errefuxiatu hartuko dituzte Atxondon herritarrei esker

**Atxondo** | Axpen dagoen aterpetxean lau hilabetez egoteko aukera izango dute migratzaileek. Datorren aste hasieran helduko dira lehenengo errefuxiatuak. Atxondo Harrera Herria bilaketzea hainbat herritarren ekimena izan da. • 7

**ALKIMAX**  
Alquilamos soluciones

**BERRIZ**  
Eitua industriagunea, 71C  
Tel.: 946 824 550

**GERNIKA**  
Goiko Ibarra, 26  
Tel.: 946 271 310

alkimax@alkimax.net / www.alkimax.net



 FAROLAK	 INFRAGORRIAK	 AIRE KANOIA	 ERRADIADOREAK	 HEZETASUN KENGAILUAK	 MOTOBONBAK	 BOMBA URPERAGARRIAK
--	---	---	--	---	---	--

## Egitaraua

### Otsailak 1, barikua

**18:00** Disko festa  
**18:30** San Blas 2019 Pilota Txapelketa, Tornosolo trinketea.  
**21:00** Bertso afaria Gaztañodi elkartearen, Amets Arzallus eta Iker Zubeldiagaz. Txartelak salgai Petite liburudendan, Muntsen eta Abarketeruena jatetxean.  
**22:30** Kontzertua txosnagunean: Ernia, The Riff Truckers eta Ni Yuta ni Tuya

### Otsailak 2, zapatua

**17:00** Herri kirolak txosnagunean: Harriti andra-proba taldearen erakustaldia.  
**18:30** Sagardo dastaketa Uxarte sagardotegiaren eskutik eta parrilada txosnagunean.

### Otsailak 3, domeka

Ganadua, baserriko tresnak eta makinak, ortuariak, fruta, gazta, txakolina, ogia, ezitia, artisautza eta landareak.  
 XXVII. Abelburu erakusketa.  
**9:00** Txistularien kalejira Txanbolin taldeagaz.  
**11:00** Meza nagusia San Trokaz elizan.  
**11:00-13:00** BELDUR BARIK GUNEA. Txanporta Plazan. Eraso sexisten kontrako sentsibilizazioa, Berdintasun Arloak antolatuta.  
**12:00** Bertsolariak Ferialeku plazan: Txaber Altube, Aitor Bizkarra eta Garikoitz Sarriugarte; aurkezlea, Bittor Altube.  
**12:00** Herri kirolak probalekuan:  
 XIX. Urrezko Aizkolariak Txapelketako gizonzkoen binakako norgehiagoka: Aitzol Atutxa II eta Julen Alberdi 'Txikia IV', Xabier Orbegozo 'Arria V' eta Jon Recondoren aurka.  
 - Urrezko Aizkolariak Txapelketako emakumeen binakako norgehiagoka: Irati Astondoa - Xanta Sousa  
 - Urrezko Harrijasotzaileak Txapelketako ekitaldia harri bigaz: Imanol Illarramendi 'Kortaberri'  
**14:00** DJ Alus  
**16:00** DJ Bull  
**17:00** Erromeria Ferialeku plazan: Lotxo taldea  
**18:00** Idi probak.

### Otsailak 4, astelehena

**18:30** Abadiñoako Done Zezili abesbatzak Santa Agedaren koplak abestuko ditu kalerik kale.  
**21:30** Idi probak.

### Otsailak 7, eguena

**21:30** Idi probak.



San Blas egunean ohikoak izaten dira kordelak eta erroskilak.

## Neguko eguraldia iragarrita egon arren, azoka jendetsua espero dute San Blasetan

95 ekoizle eta 250 abelburu batuko ditu Abadiñoako azokak. Durangaldeko bertsolariek girotuko dute San Blas eguerdia

### ABADIÑO • JONE GUENETXEA

Gripeak goia jo duen honetan, San Blas kordelak ez dira sobran egongo Abadiñon. Tradizioari eutsiz, domeka izango da koloretako kordelak sama bueltan jartzeko eguna. Eguraldi txarra iragarrita dagoen arren, jendetza batuko dela iragarri dute antolatzaileek. 95 ekoizle baserrietako produktuak salgai jarriko dituzte Zelaieta auzoan egokituko dituzten postuetan. Horietatik 18 ekoizle Durangaldekoak izango dira. Gazta, ogia, txerriak, pastela, txakolina... denetarik izango da azokan. Bestalde, XXVII. Abelburu Erakusketak 250 buru batuko ditu. Hazi eta landareak hazten dituzten 11 mintegi izango dira bertan, baita baserri tresneriagaz lan egiten duten 16 enpresa ere.

### Bertako bertsolariak

Durangaldeko bertsolariek girotuko dute San Blas eguerdia. Txaber Altube, Aitor Bizkarra eta Garikoitz Sarriugarte arituko dira kantuan, Bittor Altuberen esanetara.

Musikari dagokionez, DJ Alus, DJ Bull eta Lotxo taldeak jarriko diote erritmoa domekari.

### Kontzentrazioako deia

San Blas egunean azokaren "bigabekeria" salatu eta "abereak babestuko" ditu Durangaldea Antiespezista taldeak. "Abere azoka deritzote. Errealitatean, esklabu salerosketa da. 2019. urtean, esklabutzak gurean jarraitzen du", esan dute sare sozialetan zabalduzako

### 95 ekoizle baserrietako produktuak salgai jarriko dituzte Zelaietan egokitutako postuetan

oharrean. Abadiñon jendetza batzen duen azokaren aurrean erakutsiko dute euren desadostasuna. 12:00etatik 14:00etara batuko dira elkarretaratzean, eta herritarrei bertaratzeko deia egin diete.



NEREA  
GOITI AREITIO

Izurtza, ogigilea eta gaztagilea

### "Inguruan geratzen den azoka bakarrenetarikoa da eta jendea erostera etortzen da"

IZURTZA • JOSEBA DERTEANO

#### San Blas eguna ona da jeneroa saltzeko?

Inguruan geratzen den azoka bakarrenetarikoa da eta jendea erostera etortzen da,

bai. Guk ondo saltzen dugu, ez dugu kexarik. Joan eta saldu egiten den azoka bat da. Okerrena da, otsailean denez, eguraldiak zerikusia izaten duela. Ea, aurten, bota beharrekoa astean zehar bota eta domekan ateri egiten duen. Aurten, gainera, asteburuan da eta jendea familian etortzen da.

#### Saltzeko ez ezik, erosleekin hartu-emanak egiteko balio dizue?

Ingurukoek ezagutzen dituzte ekoizleak, eta ezagutzen dituztenengana joaten dira. Nik igartzen dudana da Gipuzkoa aldetik jende asko etortzen dela: Arrasatetik, Elgetatik... Kasu horietan sortzen da tratua.

#### Zuk zeuk zelan bizi duzu eguna?

Egia esateko, ni postuan egoten naiz eta ez naiz askorik irteten. Ganadua ingururik osteratxo bat, ahal bada.

#### Zerbait aldatuko zenuke?

Ateri egitea eskatuko nuke. Eurria denean itoginak sortzen dira, jeneroa busti egin daiteke... Alde horretatik, apur bat gogai-karria izan daiteke, baina eguraldia ezin daiteke kontrolatu!



IDOIA  
FRADES UBERUAGA

Abadiño, ogigilea

### "Plazako produktu zehatzen bila joaten da jendea San Blas eguneran"

ABADIÑO • AITZIBER BASAURI

#### Berezia da zuretzat San Blas Azoka?

Lagun asko ikusten dut eta aspaldi ikusi gabeko jendea etortzen da saltokira. Alde horretatik, berezia da, bai. Gainera, urtean hiru azokatan egoten naiz ni: San Blas egunekoan eta Algortako eta Getxoko azoka

ekologikoetan. Ama oreagaz egindako 100 ogi ekologiko (espeltazkoa, zekalezkoa, haziekin egindakoa...) eramango ditut. Gozoa eta enpanadak ere eramango gura ditut. Hala ere, Abadiñon okin asko egoten gara.

#### Saltzeko ez da plaza ona San Blas eguneko?

Azokarik azoka dabilzantzat plaza ona da. Normalean ibiltzen ez garenontzat, gutxiago: jendea ez dago ohituta gureak bezalako produktuetara. Plazako produktu zehatzen bila joaten da jendea. Baina eramanen dudana ondo saltzen dut, eta, beraz, pozik nago. 11 urte dira ogia egiten hasi nintzela, eta sei urte San Blas ferian saltzen.

#### Ez du ematen eguraldiak lagunduko duenik.

Berogailu katalitikoa eramango dut, apur bat berotzeko. Oso eguraldi txarra eman dute domekarako, bai. Guk estalpea dugu, baina erosleek ez. Hala ere, ez da jenderik eta girorik faltako, ziur!

#### Egunaz disfrutatzen duzue tarterik hartuko duzue?

Bai! Saltokia batu ostean, hartuko ditugu txakoli batzuk.



ELOY  
URANGA ATUTXA

Abadiño, abeltzaina

### "Navarro alkate denetik, bere berbak onak baina hutsak izan dira"

ABADIÑO • MARKEL ONAINDIA

#### Abadiñoako abeltzainen kopuruak behera egin du azokan azken urteetan.

Navarro alkate denetik, bere berbak onak baina hutsak izan dira. Promesak egin eta ez ditu bete. Baserritarrak nazkatuta gau-

de. Lehen gugaz berba egiten zuten, azoka antolatzen batzar bat egin... Baina Navarra dagoenetik, ez da ezer egiten. Lorra elkarteari eman dio ardura, berak eskuak garbitzeko. Eta, gainera, legealdi bitan ez digu ogerleko bat ere igo parte hartzeagatik emandako sariari dagokionez. Alkatearen partetik ez dago interesik, eta herriko abeltzainen parte-hartzea behera doa.

#### Zelako eguna izango da domekakoa?

Lan askokoa. 05:00etan abelburuak garbitu, gero kamoian eramango, erakutsi, berriro garbitu... ez dut disfrutatzen astirik edukiko. Zortzi behi eta zekor bi eramango ditut. Aurten jende asko egongo da, domeka delako. Bestela ere, oraindik jende asko mugitzen du azokak.

#### Entzun duzue ezer antiespezisten protestari buruz?

Entzun dut, bai. Ikusi egin behar hori zer den. Guk ez diegu tratatu txarrik ematen abereei; zaindu egiten ditugu, eta egunerako garbi-garbi ipintzen ditugu gainera.



IBON  
LASUEN ARABIOURRUTIA

Abadiño, abeltzaina

### "Azokara ganadua erakustera joaten gara; erakusleihen bat da"

ABADIÑO • JONE GUENETXEA

#### Noiztik daramazue ganadua azokara?

Orain hamar urtetik hona, gutxi gorabehera. Harrezkero, ez dut hutsik egin.

#### Aurten zein abelburu eramango duzue?

Piriniotar arrazako bost behi, hazitarako bat eta bost txahal eramango ditut.

#### Zelan prestatuko dituzue abelburuak San Blas egunerako?

Zapatuan behiak basotik etxera ekarriko ditut, garbitzera. Gaba lasto piloagaz utziko ditut, ez daitezke zikindu, eta azokaren ostean berriro ere basora eramango ditut. Kortara goizaldean joango naiz, 4:00etan, eta gero atarian eramango ditut azokara.

#### Saltzen duzue ezer azokan?

Txahalak salduta ditut dagoeneko, okelarako. Azokara ganadua erakustera joaten gara gehienbat erakusleihen bat da. Baten bati gustatzen bazaizkio, aurrerago behin bat behar duenean deitu egingo didate beharbada. Saldu ez, baina bezeroak egin ditzakezu gerora begira.

#### Azokan kontzentrazioa egingo dute abereak erakustearren kontra.

Ganadutegian aberea esklabua dela diote. San Blas eguneran doan jendea ganadua ikaragarri zaintzen duena da, hain justu. Ez ditugu ganadutegi industrialak. Baserritan ditugun abereak etxekotzat hartzen ditugu.



IBAI  
ARRIZABALAGA

Abadiño, tabernaria

### "San Blas egunean, bertan lanerako dagoen ambiente ona gustatzen zait gehien"

ABADIÑO • ARITZ MALDONADO

#### Zelan bizi izaten duzue San Blas eguna?

Goizetik gehiago, beharrean. 08:30ean zabalduko dugu taberna, eta itxi artean barra ostean egon behar izaten naiz.

#### Eta aurreko egunak ere topera ibiliko zarete.

Aste osoa daramagu domekarako guztia prestatzen; besteak beste, barra bera prest edukitzen eta almazena txukuntzen, ahalik eta zerbitzurik onena eman ahal izateko.

#### Domeka izatera, ze espero duzue?

Asteburua denean, jende gehiago etortzen da. Hala ere, eguraldiak asko baldintzatzen du. Ea joan den asteko zapatuan bezala, tregoa apur bat ematen duten hotzak eta eurriak. Gure aldetik, topera lan egitea da gura duguna, jendea etortzea eta ondo pasatzea.

#### Zer da gehien gustatzen zaizuna?

Niretzat, esanguratsuenak, aurreko egunetan gertatzen da. Eguna hurbildu ahal, ogiak San Blas opil zaporea du. San Blas egunean, bertan lanerako dagoen ambiente ona gustatzen zait gehien. Jende asko egoten da eta behar asko egiten dugu, baina giro hori egoteak lagundu egiten du.



ALICIA  
MONEDERO ALVAREZ

Abadiño, gaztagilea

### "Oso egun berezia da San Blas; herrian gaude eta oso giro polita sortzen da"

ABADIÑO • AITZIBER BASAURI

#### Zenbat urte San Blas egunean gazta saltzen? Azoka garrantzitsua da San Blas eguneko?

14 urte dira gazta egiten hasi ginela, eta 12 bat urte San Blas azokara goazela. Oso egun berezia da; herrian gaude eta oso giro polita

sortzen da. Salmentak ere onak dira. Batez ere, Bizkaiko azoketan ibiltzen gara, eta Abadiñoako garrantzitsuenetarikoa da, San Tomas eguneko eta Gernikako Urriko Azken Asteleheneko azokekin batera.

#### Nola bizi duzue zuk eguna?

Lanean. Bilbon bizi ginenean egun-pasa etortzen ginen. Egun polita da.

#### Saltzeko plaza ona da?

Bai, oso ona. Batez ere, asteburua denean eta eguraldiak laguntzen duenean. Ez dut dena salduko, baina 100 bat gazta eramanen ditut, askotarikoak. Pintxo asko saltzen ditugu, eta, gustatuz gero, igual gazta hartzen dute. Eguna pasatzera doa jende asko azokara: taloa edo pintxoak jatera, txakolina edatera...

#### Euriari aurre egin beharko zaio domekan.

Bai, Abadiñora etortzera animatzen dut jendea. Eurria denean, igartzen da, baina jende asko etortzea espero dut. Feria ona da San Blas eta jende asko mugitzen du.

## Julian Rios izango da berriro Herriaren Eskubidea alderdiko alkategai Durangoko Udalean

"Durangarren eskaerak udalera helduko direla" bermatuko du Riosen hautagaitzak, Herriaren Eskubidearen ustez

**DURANGO • MARKEL ONAINDIA**

Orain lau urte lez, aurten ere Julian Rios izango da Herriaren Eskubidea alderdiko alkategai Durangon. Legealdi honetan, bere taldearen bozeramaile izan da, eta ardura horretaz aparte, gizarte hezitzailea da ofizioz. Gainera, gizarte mugimenduetan esperientziaduna da, baita nazioarteko kooperazioan ere.

Herriaren Eskubideak adierazi du Rios izan dela alderdiak eginiko primarioetan aurkeztutako hautagai bakarra eta kideek aho batez onetsi dutela. "Durangarren eskaerak udaletxera helduko direla eta lanean jarraituko dugula bermatuko du" Riosen aukeraketak, oharrean esan dutenez.

Auzoetan taldeak eginiko lana ere nabarmendu du alderdiak, eta ildo horri eutsiko diotela. "Adiskidetasunaren, enpatiaren eta gardentasunaren bidez auzoak lantzen jarraituko dugu", esan dute.

Zerrenda osatzeko lanean dabilta orain. Herriaren Eskubideak, Podemos-Ahal Duguk eta independenteek osatutakoa hautagaitza "irekia, zabala eta plurala" izango dela aurreratu dute.

**Hautagaitza "irekia, zabala eta plurala" izango dela aurreratu dute**

**Rios izan da alderdiak eginiko primarioetan aurkeztutako hautagai bakarra**



Rios gizarte hezitzailea da ofizioz, eta legealdi honetan taldearen bozeramaile izan da.

## 19.304 turista hartu zituen Durangok iaz, %4,4 hazita

**DURANGO • MARKEL ONAINDIA**

19.304 bisitari hartu zituen Durangok 2018an, 2017an baino 814 gehiago. Beraz, turismoak %4,4 egin du gora, inoizko daturik onena emanda. Horregatik, "pozik" agertu dira arduradunak. Aipagarria da hotelen okupazioak %13 egin duela gora; 38.586 gaualdi zenbatu dituzte ostatu guztien artean.

Aitziber Irigoras alkateak azaldu du bisitariak gora egiteaz gainera, "zerbitzuen kalitatean jauzia" egon dela. Madrildarrak izan dira atzerrikotarikoen gehienak: 538, guztira. Katalanak 486 izan dira,

andaluziarrak 348 eta frantziarrak 289. Hala ere, nabarmenezkoa da Euskal Herriko 7.893 txangozale etorri direla.

**Aipagarria da hotelen okupazioak %13 egin duela gora; 38.586 gaualdi zenbatu dituzte**

4.413 bisitarik Kurutziazako Kurutzeagaz eta Durangoko bonbardaketagaz lotutako ibilbide audiogidatuak egin dituzte.



Irigoras Natalia de Naveran teknikariagaz, Kurutzesantuko turismo bulegoan.

## Berbaro elkarteak 'Geroa aldean' lelopean ospatuko du 30. urteurrena

**DURANGO • MAIALEN ZUAZUBISKAR**

Orain 30 urte, 1989an, Berbaro elkarteak jaio zen, Durangon euskaraz bizitzeko espazioak sortzeko asmoz. Aurten, 30. urteurrena ospatzeko, egun osoko jaialdi bat egingo dute ekainaren 1ean, *Geroa aldean* lelopean.

Baina jaialdiaz gainera, hila-bete hauetan hainbat ekintza antolatuko dituzte Berbaroko kideek: hausnarketa prozesu bat, jolaserako eta kulturaz gozatzeko hainbat ekintza... "Orain arte egindako bideagaz harro, arnasa hartu eta biharko erronkei ilusioz heltzeko urtea izatea gura dugu; eta ospatzekoa ere bai, zelan ez!", adierazi dute euskara elkarteetako partaideek.

## Osasungintza euskalduntzeari buruzko berbaldia antolatu dute

**DURANGO • M.O.**

Osasungintza euskalduntzeko helburuz, Aintzat izeneko mugimendua sortu dute Euskal Herriko zenbait medikuk, eta otsailaren 7an euren dinamikaren berri emango dute,

**Adrian Zelaia mediku durangarra izango da datorren egueneko hizlaria**

19:00etan, Plateruenean egingo duten berbaldian. Adrian Zelaia mediku durangarra izango da datorren egueneko hizlaria.

Aintzat mugimendukoek Durangoko EHEgaz batera antolatu dute ekimena.

**anboto**

**Bixente Kapanaga, 9 48215 Iurreta - Bizkaia**  
Tel.: 946 816 558

**Erredakzioa:** 946 232 523  
**Publizitatea:** 946 217 902  
publi@anboto.org

**2019ko otsailaren 1a**  
17. urtea - 749. alea

Lege gordailua:  
BI-2268/01  
ISSN:  
1578-7028  
Tirada:  
11.500 ale



**Zuzendaria:** Jone Guenetxea Arrinda.  
**Erredakzio burua:** Markel Onaindia Txabarri.  
**Administrazio burua:** Itziar Belar Zubizarreta.  
**Administrazioa:** Miren Abasolo Txabarri.  
**Publizitatea:** Alazne Salcedo Artetxe eta Itxaso Martinez de Arenaza Yarza.  
**Erredakzioa:** Aitziber Basauri Gandiaga, Joseba Derteano Bilbao, Markel Onaindia Txabarri, Maialen Zuazubiskar Gallastegi eta Aritz Maldonado Zabala.  
**Maketazioa:** Bea Sierrasesumaga Guezuraga.  
**Zuzentzailea:** Mikel Azkarraga Etxegibel.

**Bizkaia**  
foru aldundia  
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



**EUSKO JAURLARITZA**

**GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA**

**DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA**

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

## Mugikortasun mugatua dutenentzat alternatibak eskatu dituzte Durangon

**DURANGO • M.O.**

Durangoko pentsiodunen mugimenduak eta Herria auzo elkar-  
teak mozio bateratua aurkeztu  
zuten martitzeneko osoko bil-  
kuran, mugikortasun muga-  
tua dutenentzat alternatibak  
eskatzeko. Diotenez, herritar  
batzuek zailtasunak dituzte  
herriko osasun zentroetara  
zein beste zerbitzu batzuetara  
joateko, eta sarritan kostu eko-  
nomikoa ekartzen die horrek.  
Horregatik, aukera bi ipini zi-  
tuzten mahai gainean: pertsona  
horien garraioa diruz laguntzea  
eta taxisten kolektiboagaz hi-  
tzarmen bat sinatzea, kostu  
"eramangarriago" bat lortzeko.

### **Pentsiodunen mugimenduak eta Herria auzo elkar- teak mozio bateratua aurkeztu zuten**

Mozioa aho batez onartu zuten  
alderdi politikoek.

Pilar Riosek (PSE-EE) udal  
gobernuaren izenean adierazi  
zuen arautegi bat "aurreratuta"  
dutela, eta taxilariekin hitzar-  
mena lotzea falta dela. Orain  
hiru urtetik dabilta gaiaz ber-  
betan udalean, eta oposizioak  
denboran luzatu izanaren kri-  
tika egin zion gobernuari. Ion  
Andoni del Amoren (EH Bildu)  
ustez, badira antzerako auzo-ta-  
xi ereduak inguruko herrietan.  
Patxi Lopez Lakunzaren (He-  
rriaren Eskubidea) iritziz, zerbi-  
tzua martxan egongo litzateke  
"gobernuak gura balu".

# Mauricio Garciak (PSE-EE) ere Erabakiren mozioa babestu, eta estazioko obra etetea onartu dute

Martxan ipini dute etxedorreen planari buruzko kontsulta antolatze-  
ko batzordea, baina oraindik ez dute argitu kontsultaren data



Estazioko proiektuan 550 etxe eraikitzea aurreikusita dago, jolasgune eta zerbitzuez gainera.

**DURANGO • MARKEL ONAINDIA**

Galdeketa egin arte, estazioko  
obra gelditzea eskatu zuen Erabaki  
plataformak martitzeneko oso-  
ko bilkuran, eta mozioa aurrera  
atera zen EH Bilduk, Herriaren  
Eskubidea eta PSE-EEko Mauricio  
Garciak ere babestuta. Beraz, udal-  
batzaren mandatu hori gauzatzen  
den ala ez ikusi beharko da orain.  
"Pozik gaude, mozioa onartu de-  
lako eta aurrerapauso bat delako.  
Orain, obrak noiz geldituko diren  
itxaroten gaude, ea noiz beteko den  
onartutakoa", adierazi du Erabaki  
taldeko Mikel Uriguenak.

Gobernuko kide izan arren,  
Mauricio Garciak apurtu zuen

mozioaren aldeko balantza. Azaldu  
zuen irailean ere bere iritziaren be-  
rri eman zuela alegazioak egitean,  
eta ordukoari jarraiki, obrak etetea  
ondo ikusten duela.

Goiztidi Diazek (EAJ) proiektua-  
ren garapenagaz jarraitzea propo-  
satu zuen, eta batzorde berezi bat



Mikel  
Uriguenak

**"Pozik gaude, mozioa  
onartu delako eta  
aurrerapauso  
bat delako"**

sortzea galdeketa egiteko. "Batzor-  
deak legezketasuna bermatuko  
du", esan zuen. Pilar Rios sozialis-

tak esan zuen kontsulta egin gura  
dutela, baina "berme legalekin".

### **Batzordea, sortuta**

Hain zuzen, batzorde hori sor-  
tzea onartu zuten bilkurako bes-  
te puntu batean, kasu honetan  
Garciairen aldeko botoagaz ere.

Kontsulta antolatze-  
ko ardura edukiko  
du, txosten juridi-  
koak aztertuta eta  
agerraldiak eginda.  
Baina, oraindik ez  
dago galdeketa-  
rako datarik argituta.

EH Bilduk eta Herriaren Esku-  
bidea batzordearen eraketaren

aurka bozkatu zuten, prozesua  
luzatzeko saiakera delakoan. "Ez  
duzue galdeketa egin gura hau-  
teskundeen aurretik", esan zuen  
EH Bilduko Dani Maeztuk. Herria-  
ren Eskubidea Jorge Varelak  
nabarmendu zuen obra geratzen  
bada etorkizunean kalteordainak  
saihestu ahalko direla.

### **Tapiaren erantzuna**

Bestalde, etxe dorreen plana egun-  
go beharrianetara "berregokitze-  
ko" eskatu zion Irigorasek Arantxa  
Tapia sailburuari, eta honek eran-  
tzun dio Eusko Jaurlaritzak analisi  
prozesu bat hasiko duela, "aukera  
guztiak aztertzeko".

**50 URTE**

**KURUTZIAGA IKASTOLA BIZITZEKO HEZI**

**MATRIKULA ZABALIK**

**GURE HEZKUNTZA PROIEKTUA**  
Ikaslea ardatz  
Euskara eta Euskal kultura  
Eleaniztasuna  
Genero berdintasuna  
Aniztasuna  
Natura

[www.kurutziagaikastola.eus](http://www.kurutziagaikastola.eus)

Logos for Euzko Lehen Heziketa, Heziketa, Ikastolen Elkartea, and Ibaizabal.

# Etorkinei ez zaiela bertakotzean laguntzen azpimarratzen da aniztasun kulturalaren inguruan egindako diagnostikoan

Atzo iluntzean, aniztasun kulturalaren inguruko jaialdia egin zuten Arriolan; herriko kulturak nabarmentzea izan zen ekimenaren helburua



2017an, musulmanek jaialdi batez ospatu zuten ramadamaren amaiera, eta herritarrek gonbidatu zituzten.

## ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Elorrioko aniztasun kulturala bultzatu eta nabarmentzeko asmoz, atzo Aniztasun jaialdia egin zuten Arriolan. *Kontran ez dut ezer, baina...* lelopean, zenbait herritarren artean egon daitezkeen hainbat aurreiritziri aurre egiteko asmoz antolatu zuen Elorrioko Udalak ekitaldia. Aurreiritzi horiek plazaratzeko, antzerkia, marrazkigintza eta zuzeneko musika izan zituzten bidelagun. Gainera, azken urte bietan Elorriora etorritako herritarrekin eta Elorrioren jaio edo orain 40 urte herrira etorritakoekin landutako diagnosiaren emaitzak aurkeztu zituzten. Arriolako ekitaldian jakitera eman zutenenez, herritarren arteko jarrera ona izaten den arren orokorrean, zenbait jende talderen artean kontaktu eta harreman zuzen gutxi dago. Oro har, jendea ezagunekin, betiko lagunekin, etxeekin... egoten dela adierazi zuten.

Bestalde, udalak burutu duen bigarren diagnosi honetan, Elorrioren

## Diagnostikoa herrira etorritakoekin eta bertan jaiotakoekin egin du Elorrioko Udalak

## Oro har, jendea ezagunekin, betiko lagunekin eta etxeekin egoten da

etorkinak egunerokotasunean begirunez tratatzen dituztela ageri da, baina, aldi berean, bertakotzea ez zaiela askorik errazten azpimarratzen da. Elorrioren laguntzak ematen dituzten arren etxebizitza edo lanpostua lortzeko, beste arlo batzuetan ez zaiela laguntza handirik ematen ohartarazi zuten atzo egindako aniztasun jaialdian. Gabezia horiek garapen pertsonalean, edo nahi, sentimendu eta sentsazioen arloetan gertatzen direla aipatu zuten.

## Umeen eta gazteen egoera

Umeen kasuan, Elorrioren jaiotakoak eta herrira etorritakoak berdintzatzen dituztela eta lagunak direla ageri da diagnostikoan. Harreman-

## Harremantzerakoan, umeentzat arrazak, azalaren koloreak... ez dute garrantzirik

## Elorrioren ere aberastasun soziala banatzea behar-beharrezkoa dela ohartarazi dute

tzerakoan, umeentzat arrazak, jatorriak edo azalaren koloreak ez dute garrantzirik. Hala ere, nerabezaroen kuadrilletan gazte etorkin berririk ez dagoela jakitera eman zuten atzo. Bestalde, gaztelekuak edo gaztetxeak harremanak finantzatzeko gune eragingarriak izan daitezkeela ondorioztatu dute.

## Jarrera eraldatzailea

Iritzi guztiak kontuan hartuta, Elorrioren programa bereziak landu behar direla jakinarazi dute Elorrioko Udaleko kideek, eta aberastasun soziala banatzea beharrezkoa dela.

Horrez gain, erantzunak kolektiboa izan behar duela eta herritarrek banan-banan zein denek batera jarrera eragile eta eraldatzailea izan behar dutela azpimarratu du Elorrioko Udalak.

# Udal aurrekontuko 40.000 eurogaz zer egin erabakitzeko aukera dute garaitarrek

## GARAI • MARKEL ONAINDIA

Udalak azaro hasieran onartu zuen 2019rako aurrekontua, eta bertan zehaztutako egitasmoen gainera, 40.000 euroko diru partida bat herritarrekin batera erabakitzeko helburuz gorde zuen. Lehenengoz sortu dute partida; iaz ere jaso zituzten herritarren ideiak, baina diru zehatz bat gorde barik.

Joan zen astean, batzar zabala egin zuten eta ideia batzuk plazaratu zituzten: euskararen ondarea berreskuratzea, argiteria hobetzea... Otsailaren 21era arteko epea egongo da proposamenak udal txean aurkezteko.



Herritarrek otsailaren 21era arte aurkeztu ahalko dituzte ideiak, udaletxean.

## Biharko koplekin batutako diruagaz, Hamadako Izarraki lagunduko diote

## MAÑARIA • J.D.

Herritarrek antolatuta, Santa Ageda koplak abestera irtengo dira bihar. 08:30ean jarri dute hitzordua, plazan. Bertan lehenengo koplak abestu eta, horren ostean, auzorik auzo ibiliko dira. Egun horretan batzen duten dirua Hamadako Izarrak elkarteari emango diote. Elkarrekin honek ume sahararrak ekartzeko dituzte udaro. Besteak beste, desertuko berotik babesteko eta osasun azterketak egiteko helburuz etortzen dira umeak.

## Mindfulness ikastaroan izena emateko aukera dago Berrizen

## BERRIZ • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Pentsamendu, sentsazio fisikoko, emozio eta sentimenduak zehaztasun handiagoz nabaritzen ikasteko asmoz, Mindfulness ikastaroa antolatu dute aurten ere Berrizen. Jabekuntza Eskolaren barnean antolatuta dagoen tailerrean izena eman gura dutenek otsailaren 5a baino lehen egin behar dute.

Ikastaroa otsailaren 6an hasi eta maiatzaren 29an amaituko da. Emakumeak eguaztenero batuko dira, 16:30etik 18:30era.

## Hainbat herritarri esker bost errefuxiatu hartuko dituzte Atxondon datorren astean

Axpen dagoen aterpetxean lau hilabetez egoteko aukera izango dute migratzaileek



Joan zen barikuan batzar irekia egin zuten udaletxean.

### ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Beste herrialde batzuetatik exiliatu behar izan duten pertsonen harrera herria izan gura du Atxondok. Hori horrela, lehenengo pausoak eman eta datorren aste hasieratik, lau hilabetez, bost errefuxiatu hartuko dituzte Axpeko aterpetxean. "Lanean gabiltza errefuxiatuak lehenbailehen hartzeko. Guztia prest izan gura dugu, harrerarik txukun eta beroena izan dezaten", adierazi dute Atxondo Harrera Herria taldeko kideek.

**Errefuxiatuei baliabideak eskaini gura dizkiete, "ahalik eta ondoen" bizi daitezten**

Atxondon jasoko dituzten errefuxiatuei "harrera integral" bat eskaintzea da ekimen honen asmoa. Horrela, Axpeko aterpetxean dauden bitartean, deskantsatzeko aukera eskaintzeaz gainera euren etorkizunaren inguruan "lasai" erabakitzeke aukera eskainiko die-

te. "Euren egoera oso delikatua da, bidaia luzeak egin dituzte honaino heldu ahal izateko. Gainera, euren etorkizuna hemen ere ez da erraza. Beraz, baliabideak eskaini gura dizkiegu, ahalik eta ondoen bizi daitezten", jarraitu dute.

Atxondo Harrera Herria bilakatzeari hainbat herritarrek bul-tzatutako ekimena da. "Udan, migratzaile talde handi bat egon zen Bilbon, eta herritarrek ordezkatu zuten instituzioen erantzun eta harrera falta. Laguntzeko aukera proposatu ziguten, eta kontuan hartuta gure herrira hainbat migratzaile heltzen direla oraindik, proiektuagaz aurrera egitea erabaki genuen", esan dute.

Joan zen astean egin zuten lehenengo batzarra herritarrekin, eta harrera "oso ona" izan zuen. "Herririk oso ondo jaso du proiektua. Gainera, gero eta jende gehiago batzen dabil", esan dute. Bestalde, elkartasun guztia ongi etorria dela eta inork eurekin harremanetan jarri gurako balu [atxondo.harreraherria@gmail.com](mailto:atxondo.harreraherria@gmail.com) helbidera idatzi dezakeela jakitera eman dute.

## Ane Intxausti izango da EH Bilduren alkategaia Atxondon

Alkategaia aukeratzeko EH Bilduk egindako barneko prozesu parte-hartzailean hautagai bakarra aurkeztu da

### ATXONDO • J.G./M.Z.

Atxondoko EH Bilduk badauka bere hautagaia maiatzaren 26ko udal hauteskundeetarako: Ane Intxausti Garitaonandia. Intxaustik 37 urte ditu, Zuzenbidean lizentziatua da, eta Haur Hezkuntzan graduatua. Lan arloko abokatu moduan jardun zuen eta 2009. urtetik hona Abadiño Udalean dabil lanean.

2019ko urtarrilean egindako barneko prozesu parte-hartzailean, Atxondoko EH Bilduren ko-

munitateak zerrendaburu izateko proposatu zuen Intxausti, eta hauteskunde batzordeak proposamena egin ostean, bere burua prest agertu du alkategai izateko, araudiak ezartzen dituen beharrezko abalekin eta komunitate osoaren babesagaz.

Gainerako hautagaiak mar-txoan aukeratu zituzte. Fase horretan parte hartzeko ere, ezinbestekoa izango da EH Bilduren barneko erroldan izena ematea: [elkarrekin.ehbildu.eus](http://elkarrekin.ehbildu.eus)



2009. urtetik hona Abadiño Udalean dabil lanean Intxausti.



## Gure ikasleen ahotan

### Definitu apur bat zure burua: non egin dituzu orain arteko ikasketak?, baduzu hobby edo zaletasunik?

Lehen Hezkuntza Durangoko Landako Eskolan egin nuen eta, Bigarren Hezkuntzara pasatzean, IES Fray Juan de Zumarragako instituturara joan nintzen, Batxilergoa amaitu arte. Urte askotan saskibaloian aritu nintzen, balleteko klaseak jasotzen nituen bitartean, baina gaur egun gimnasioan ematen dut nire denbora librearen zati handi bat.

### Zergatik aukeratu zenuen myGADE gradua? Eta zergatik Mondragon Unibertsitatea?

DBHko laugarren mailan argi ikusi nuen nire etorkizuneko ikasketak enpresaren mundura bideratuta egongo zirela. Mondragon Unibertsitateak eskaintzen zuen metodologia ezagutu nuenetik arreta deitu zidan eta behin myGADE ezagutu nuenean oso argi izan nuen.

### Nola baloratzen duzu orain arte bizitako esperientzia?

Lagun berriak egin ditut, esperientzia berriak bizi... zaila egiten da egunero kotxean 60 kilometro egitea baina nire gustuko gradu bat ikasten ari naiz etorkizunean, posiblea bada, gustuko dudana lanpostu bat lortzeko eta horrek asko motibatzen nau. Beti daude momentu zailagoak... baina orokorrean, guztiz positiboa izan da.

### Nola definituko zenuke myGADEn jasotzen duzun ikasteko metodologia?

Mondragon Unibertsitateak planteatzen dituen klase dinamikoak, talde lanak, praktikak, atzerriko esperientziak... oso deigarriak dira eta behin barruan zaudela, baieztatu daiteke. Derrigorrezko Hezkuntzan eta Batxilergoan bizi dudana oso ezberdina da. Egunerokotasuna jasangarriagoa egiten du, atseginagoa, dinamikoagoa... eta asko laguntzen du gradu bat aurrera eramaterako orduan.

### Unibertsitateetik zer da gehien gustatzen zaizuna?, Eta zerbait hobetzeko?

Gehien gustatzen zaidana metodologia da. Egunerokotasunean asko laguntzen du baina baita ikasterako orduan, jendearekin elazionatzeko orduan, esperientzia berriak bizitzeko orduan... Beste alde batetik, Durangokoa izanda, campusa eskuragarriago izatea gustatuko litzaidake.

### Lanean ari zara ikasten duzun bitartean edota laster hasiko zara, Dual eredu. Non ari zara jardunean edota non hasiko zara eta zer lan mota egiten?

MyGADE graduan eskaintzen duen aukerarako bat, graduak irauten duen lau urteetan zehar enpresa batean ikasketak eta praktikak aldi berean egitea da. Nire kasuan, lehenengo mailako bigarren lauhilekoan fase honekin hasi nintzen; orduetik, Eroskiko egoitza zentratean egon naiz, Elorrión. 10 hilabete hauetan zehar, merkataritza departamentuan egon izan naiz, eskaintzei eta hornitzaileekiko harremanei buruz ikasten.



**"Esperientzia dualak hazten laguntzen dizu pertsona eta ikasle bezala"**

Jone San Salvador | 19 urte - Durango  
Mondragon Unibertsitatean, myGADEko (Enpresen Administrazioa eta Zuzendaritza gradu duala) 2. maila burutzen ari da.

### Zer nolako ekarpena uste duzu egiten dizula eredu dualak?

Hasieran beldur eta egonezina sortarazten du, 18 urte dituzula enpresa batean lanean hastea pausu oso handia baita. Enpresan badakite ez gairela adituak eta gurekin pazientzia izan beharko dutela, edozer gauza zerotik ikasi beharko dugulako, baina ikasleek ikasteko prest dagoela erakusten badu, enpresako lankidetzat ere esperientzia positibo bat da. Esperientzia honek, ikasle bezala haztera laguntzen du baina baita pertsona bezala ere.

### Atzerriara joan zara edota joango zara myGADEn?

Ibilbidearen arabera (duala edo akademikoa) aukera ezberdinak daude atzerriko esperientzia bizitzeko baina denok egin behar dugu atzerriara irteera bat gutxienez. Enpresa ibilbideko ikasleek (praktiketan gabiltzanak), orain arte bi aukera izan ditugu: Sheffield (Ingalaterra) eta Querétaro (México) baina aurten hirugarren bat eskainiko dela esan digute. Hala ere, laugarren mailako gradu amaierako proiektua atzerrian ere egiteko aukera dugu.

# Urte eta erdiko atzerapenagaz bada ere, aurrera doa Tantorta auzoko sarrera berrantolatu eta supermerkatua egiteko asmoa

Eroskik eremu hartarako aurkeztutako Plan Berezia onartu zuten, joan zen barikuko udalbatzarrean, EAJren eta PSE-EEren aldeko botoekin

**ZORNOTZA • JOSEBA DERTEANO**

Urte eta erdiko atzerapenagaz bada ere, Tantorta ingurua berrantolatzeko eta auzorako sarreran supermerkatu berria egiteko asmoa aurrera doa. Eroskik eremu hartarako aurkeztu duen Plan Berezia joan zen barikuko udalbatzarrean onartu zuten. Ez zuen alderdi denek adostasuna lortu. EAJ eta PSE-EEren aldeko botoekin irten zen aurrera. EH Bilduk eta Hiri Ekimenak kontra bozkatu zuten.

**Besteak beste, URA agentziaren eskakizunengatik atzeratu da, alkatearen esanetan**

**Onartutako proiektuak hirigintza aldaketa garrantzitsuak jasotzen ditu Tantorta auzorako**

Supermerkatua 2017ko lehen seihilekoan zabaldu gura zuen Eroskik. Halaxe iragarri zuen 2016 hasieran, Zornotzako Gobernu Taldeko eta Dendariak elkarteko kideekin batera eskainitako agerraldian. Baina proiektuak atzerapena izan du. Andoni Agirrebeitia alkateak udalbatzarrean azaldu zuenez, URA agentziaren eta Iparraldeko Konfederazio Hidrografikoaren eskakizunen ondorioz izan da atzerapena. Izan ere, Tantorta ingurutik erreka bat igarotzen da.



Joan zen barikuko udalbatzarrean onartu zuten Plan Berezia, EAJren eta PSE-EEren aldeko botoekin; EH Bilduk eta Hiri Ekimenak kontra bozkatu zuten.

## Auzorako hobekuntza

Onartutako proiektuak hirigintza aldaketa garrantzitsuak jasotzen ditu Tantortarako. Esaterako, Boroatik Zornotzako sarbidea hobetuko dute. Horrez gainera, Tantortarako bidearen ondoan 30 aparkaleku berri egingo dituzte, San Pedro kalean zuhaitzekin atondutako espaloiak eraikiko dituzte, argiztapen berria jarriko dute eta auzoko zirkulazioa ordenatuko duen birbilgunea egingo dute. Aldaketa horiez gainera, umeen jolas gune berri bat ere egingo dute.

Lan horiek egin ostean, 1.500 metro karratuko azalera komer-

**EH Bildu: "Ez dugu uste kanpoko enpresa baten esku utzi behar denik auzo baten egokitzapena"**

**Hiri Ekimena: "Eskakizun batzuk beteko dira, baina ez dira auzotarrek merezi dituzten hobekuntza denak"**

tziala duen supermerkatua egingo du Eroskik. Establezimendu honek 40 enplegu inguru sortzea itxaro-

ten dute. Obrak aurtengo bigarren seihilekoan hasiko direla aurreikusten dute, eta sei milioi euro inguruko inbertsioa eskatuko du, udalak ohar batean azaldu duenez.

## Ezezkoaren arrazoiak

EH Bilduko Ander Uriarte zinegotziak hainbat argumentu eman zituen ezezkoa arrazoitzeko. "Ez dugu uste kanpoko merkataritza-enpresa baten esku utzi behar denik auzo baten egokitzapena. Eta, gainera, erabaki honek komertzio txikia kaltetuko duela uste dugu", azaldu zuen udalbatzarrean. Hiri Ekimenako Abel Isasik argudio nagusi bi-

eman zituen ezezkoa arrazoitzeko. "Bere sasoiak, Tantorta auzokoekin batu eta euren eskakizunak udalbatzar honetara ekarri genituen. Eroskik eskakizun batzuk beteko ditu, baina ez dira auzotarrek merezi dituzten hobekuntza guztiak. Bestalde, uste dugu ez dela enpresa pribatu baten esku utzi behar auzoaren hobekuntza", esan zuen.

PSE-EEK, ostera, aldeko botoa eman zuen. Alicia Hernandez zinegotziaren esanetan, "auzotarrak alde agertu dira eta Dendariak elkarte ere alde dago". Proiektu honek herriari "onurak" ekarriko dizkiola uste du.

## Condor industrialdeari izena aldatu diote eta Zubipunta deituko da aurrerantzean

Enpresa batetik zetorkion izena, baina konnotazioak izan zitzaizkeen berba zela azaldu zuten alderdiek

**ZORNOTZA • JOSEBA DERTEANO**

Condor deitzen zen industrialdeari izena aldatu diote eta Zubipunta deituko da aurrerantzean. Azken udalbatzarrean, aho batez hartu zuten erabakia.

Industrialdeari Insecticidas Condor enpresatik datorkio izena. 1966 eta 1985. urteen artean egon zen zabalik enpresa eremu hartan, eta gerora garatu den industrialdeak izen hori hartu zuen. Aldaketaren sorburuan, Hiri Eki-

menak egindako proposamena dago. Alderdi denek begi onez ikusi eta Euskaltzaindiari ikerketa bat egiteko eskatu zioten. Txostenak Zubipunta izena proposatu zuen,

**Euskaltzaindiako txostenak proposatutako izena aho batez onartu zuten udalbatzarrean**

izen hori zuen etxe bat egon zelako inguru hartan sasoi batean.

## Berbaren konnotazioak

Condor berbak dituen konnotazioak direla-eta, alderdiak pozik agertu ziren aldaketagaz. Izan ere, 1936an Gernika bonbardatu zuen abiazioa Legion Condor deitzen zen. "Iragan gaiztoko memoria batera eramanez zezakeen izenak", azaldu zuen EH Bilduko Urko Lopezek. Hiri Ekimeneko Abel Isasik gogoratu zuenez, oraindik horrelako "aztarnak geratzen dira herrietako kale eta plazetan, eta horiek ezabatzen joan behar dira".



Eubatik etorrita, Zornotzarako sarreran dago industrialdea.





Taxilariak udaletxe aurrean izango du bere plaza.

## Udalbatzarrean esleipena onartuta, taxi zerbitzua izango du Mallabiak hilabete barru

Auzo taxia martxan jartzeko lehenengo urratsa da; orain, arlo horretako ordenantza fintzen hasiko da udala

**MALLABIA • JOSEBA DERTEANO**

Hilabete barru, taxi-gidari bat herritarren zerbitzura egongo da Mallabian. Udaletxearen aurrealdean izango du bere plaza, eta gura duten herritarrentzat egongo da erabilgarri.

Helburu handiago bat lortu gura dute Mallabirako taxilari plaza bat sortuta. Udalak auzo taxia jarri gura du martxan, eta, bide horretan, "taxilari plaza bat

esleitzeko prozedura gauzatzea da lehenengo urratsa", adierazi du Igor Agirre alkateak. Urtarrilaren 18an egindako udalbatzarrean

**Udaletxearen aurrean udalak duen zoru batean izango du plaza Mallabiko taxilari berriak**

onartu zuten esleipena. Ordutik aurrera, taxilari berriak (mallabitarra da) hilabeteko epea du ibilgailua araudira egokitzeko. Beraz, otsailaren hirugarren aste ingurutik aurrera hasiko da martxan.

**Ordenantza lantzen dabilta**

Auzo taxi zerbitzua eskaintzeko bidean, udalaren hurrengo urratsa arlo horretako ordenantza fintzea eta onartzea izango da. "Orain horretan gabilta", azaldu du Agirrek. Auzoak herriguneagaz lotzea da auzo taxia martxan jartzearen helburu nagusia.

# Estetika gida

anboto

**Ile-apaindegia**

**NUKLEO**  
ileapaindegia

**946 582 996**  
Nizeto Urkizu, 14 behea  
ELORRIO

**Ile-apaindegia**

**IUNIK**  
ILEAPAINDEGIA

Antso Estegiz, 1  
DURANGO  
Tel.: 946 216 491

**Belardenda eta dietetika**

**OSASYN - ETXEA**  
BELAR-DENDA eta DIETETIKA  
40 urte baino gehiagoko esperientzia

**OSASUNA ONGIZATEA**  
COACHING NUTRIZIONALA  
SENDABELARRAK

**AHOLKULARITZA PERTSONALIZATUA**

Ermodo kalea, 13 (Madalena galeriak) - DURANGO  
Tel.: 688 730 694-osasunetxea@hotmail.com  
Herboristeria Osasun Etxea

**Ile-apaindegia**

**Salón de belleza**  
M<sup>a</sup> Jesús Luque  
UNISEX ILE-APAINDEGIA


Kurutziaga kalea, 9 - DURANGO  
946 81 43 89

**Maria Jesus Luque**

**MARIA JESUS LUQUE |**  
**Garai euritsu honetan, zein da bezeroek gehien eskatzen duten zerbitzua edo tratamendua?**  
Eguraldi euritsua dela-eta, hezetasun handiagoa dago inguruan. Ondorioz, ilea harrotu eta kizkurtu egiten da. Hori dela-eta, sasoi honetan gehien gomendatzen dugun tratamendua keratina bidezko ile-leuntzea da.

**Zertan datza keratinazko leuntzea?**  
Leuntze kapilar bat da, gainazal kutikularra indarbertzeaz eta erreparatzeaz gainera, ilea leundu egiten duena. Produktuek bioaktibo botaniko brasildarrak dituzte eta baita aminoazido kopuru altua ere. Horrek guztiak ilearen pH-a egonkortzen du eta zuntz kapilarrak lerrokatzen ditu. Emaiza oso onak ditu eta, gainera, zeta-antzeko ilea uzten du, ileari distira eta testura emanez.

**Ile-apaindegiko tratamenduaz gain, etxean ere mantentze-lanak egitea gomendatzen duzue?**  
Bai, oso garrantzitsua da jarraipena ematea ile-apaindegian egindako tratamenduari, batez ere, leuntzearen efektuak askoz ere denbora gehiago irauteko. Horretarako, xanpu eta ile-egokitzaile berezi bat erabili behar da. Eta, horrez gain, seruma ere aplikatzea aholkatzen da, ilea hidratatzeaz eta elikatzeaz aparte, puntak zigilatzen baititu.



**Profesionalik onenak zure zerbitzura!**

## Olazar dorretxea konpondu, eta parkean ur txorrotak jarriko dituzte

**ZALDIBAR** • A.M.

Azken urteetan egin duten bezala, aurrekontuetako diru partida bat saio parte-hartzai-leetan erabakitakoaren arabera banatu du Zaldibarko Udalak.

### Aurrekontu parte-hartzaileen saioetan erabaki zuten zeintzuk diren lehentasunak

Horrela, Olazar inguruetan inbertituko dute aurrean. Alde batetik, Olazarko dorretxea konponduko dute, eta, bestetik, ur txorrotak jarriko dituzte han. Jolas parkeetako bat estaltzea ere erabaki zuten saio horietan.

## Osakidetzak etxeko ospitalizazioen eremuan sartu du Otxandio

**OTXANDIO** • J.D.

Urte askoan Otxandio Udaletik egindako eskariari erantzunez, Osakidetzak etxeko ospitalizazioen eremuan sartu du Otxandio. Aldaketa honez, hainbat abantaila lortzen dira. Pazienteak etxean jaso ahalko duenez mediku arreta, gaixoa familia gunera berehala itzultzea errazten du, ospitalean geratu beharrean. Modu horretara, gaixoaren bizi kalitatea hobetzea da helburua.

## Auzo bideen gaineko inbentarioa amaitu dute eta dagoeneko indarrean dago

**IZURTZA** • J.D.

Izurtzako auzo bideen inbentarioa egin du udalak eta dagoeneko indarrean dago. Azken udalbatzarrean onartu zuten, EH Bilduren (Gobernu Taldea) aldeko botoekin eta EAJren abstentzioagaz.

Auzo bideak zehazten zituen aurreko txostena zaharkituta zegoen, eta horregatik egin dute berria. Bide publikoak zeintzuk diren definitu eta kategoriak sailkatzen ditu, besteak beste, inbentario berriak.

# N-636 errepidearen titulartasuna eskatu dio Abadiñoko Udalak Bizkaiko Foru Aldundiari

Zelaietatik hasi eta Atxondoko mugarainoko errepide zatiaren titulartasuna lortuta, zeharbide bilakatzea gura du udalak



Zelaietako sarbidean ere biribilgunea egingo dute.

**ABADIÑO** • ARITZ MALDONADO

"Biribilgune bi egitea baino gehiago da N-636 errepiderako aurreikusten dugun plana". Jose Luis Navarro alkateak irmo azaldu du udal gobernua Zelaietatik Atxondoko mugaraino heltzen den errepiderako duen plana. "Zeharbide bilakatu gura dugu", gaineratu du. Bizkaiko Foru Aldundiak errepidearen zati horren titulartasuna udalari ematea izango da gakoa. Muntzaratze-ko sarbidearen arazoa konponduko duten eta Zelaieta auzoko sarbidea erraztuko duten biribilgune biez

gain, errepidea konpontzea eta oinezkoentzako bidea egitea aurreikusten du Abadiñoko Independentek eta EAJk osaturiko udal gobernuak.

1,2 milioiko aurrekontua du proiektuak, eta Abadiñoko Udalak aurreratu beharko du di-

### Biribilguneak egiteagaz ados egon arren EH Bilduk gobernu taldearen asmoa kritikatu du

### Proiektuak 1,2 milioi euroko aurrekontua du, eta Abadiñoko Udalak aurreratuko du dirua

rua. Hiru urtean itzuliko lioke Aldundiak.

### Ardura eskatu du oposizioak

Biribilguneak egiteagaz ados egon arren, EH Bilduk "erantzukizunez" jokatzeko eskatu dio udal gober-

nuari, izan ere, "herria hipotekatu" dezake erabaki honek. "Helburuekin ados gaude, baina ez hartu beharreko bideagaz", esan du Mikel Urrutia zinegotziak. Luzera begira, "kaltegarria" izan daitekeela uste du oposizio alderdiak, erabakia "elektoralista" dela esateaz gainera. Bestalde, Aldundiagaz negoziazioa txarto kudeatu izana leporatu zion EH Bilduk. "Ez du zentzurik Abadiñoko Udalak Aldundiari dirua aurreratu behar izateak, interesik barik jaso behar badu gero", dio Urrutiak.

## Herritarren parte-hartzeagaz osatuko du hauteskunde programa EH Bilduk Iurretan

Batzar irekia antolatu dute otsailaren 9rako, "datozen urteetako egitasmo nagusiak zehazteko asmoz"

**IURRETA** • AITZIBER BASAURI

Udal gobernuan aldaketa egitea izango du helburu EH Bilduk datozen udal hauteskundeetan, eta horretarako programa lantzeko, herritar denei zabalduko batzara antolatu du otsailaren 9rako. "Denon artean Iurreta hobe bat eraikitzeko" parte hartzera gonbidatu ditu herritarrek EH Bilduk, "datozen urteetako egitasmo nagusiak zehazteko", ohar baten azaldu dutenez. Goiuria kulturgunean izango da batzara, 10:00etan.

EH Bilduk azaldu duenez, "aldaketarako giltzak izango diren proiektuak zehaztuko dituzte", honako ildoetan sakonduta: ekintza soziala, parekidetasuna, kulturartekotasuna, hirigintza jasangarria, euskararen eta kulturaren sustapena, partaidetza, auzo eta herri

nortasuna... Gogoratu dute orain lau urteko hauteskunde programak ere herritarren partaidetza izan zuela oinarri. "Nabarmen-koa da orduko zenbait proposa-

### Goiuria kulturgunean egingo dute herritar guztiei zabalduko batzara, 10:00etan

men aurrera ateratzea lortu duela EH Bilduk legealdi honetan, oposizio eraikitzailea eginez", diotenez. Aurrekontu parte-hartzaileen egitasmoa eta herrigunean aterpe bat eraikitzeko proiektua jarri dituzte horren adibide lez.

## Batzokian egindako pintaketak gaitzetsi dituzte alkateak eta Itxaso Atutxak

**IURRETA** • AITZIBER BASAURI

"Euskal gizartea eta Iurretakoa bide batetik goaz eta Batzokiko pintaketan egileak bestetik, guztiz kontraktotik". Berba horiekin gaitzetsi ditu Iñaki Torrikaguena alkateak joan zen domekan egindako pintaketak. "Lanean jarraituko dugu, gure herria eta bertan bizi garenon arteko elkarbizitza hobetzeko", azaldu du. Itxaso Atutxa BBBko presidentek ere gaitzetsi ditu pintaketak, adierazpen askatasunaren aurkako erasotzat joz.



UNAI INGUNZA. 'ZORNOTZA ATZO'

## Hareek denporak!

# Muffler's, soul musika 60ko hamarkadan Elorrion

60ko hamarkadan zazpi elorriarrek sortutako musika taldea izan zen Muffler's. Soul abestiak jotzen zituzten, azal zuriaren azpian arima beltza zutela erakutsiz. Musikari amerikarren bertsioak jotzen zituzten.

Argazkia 1971n egin zuten. Ezkerretik hasita, hauek dira zazpi taldekideak: Jesus Aierra, Isidoro Arrizabalaga, Javi Moisen, Adrian Martin, Juan Luis Moisen, Vicente Diaz eta Jose

Vicente Sagastizabal. Urtebete geroago, 1972an, soldaduskara joateko sasoi heldu zitzaion eta taldea utzi behar izan zuten. Bueltatu zirenean, musika jotzen jarraitu zuten, baina beste izen batez: Volumen taldea.

"Euskal Herrian ez ezik, Errioxan ere eskaini genituen kontzertuak. Sasoi batean, astebururo izaten genituen kontzertuak", gogoratu du Isidoro Arrizabalagak.

## Politikan

Pilar Rios Ramos  
PSE-EE



### Gure adinekoak asko inporta zaizkigu

Urterik urte, gero eta adineko pertsona gehiago dago gure udalerrian. Gaur egun, 60 urte-tik gorako pertsonak biztanleriaren %25 dira, 1.933 lagunek dituzte 80 urte edo gehiago, eta haietatik %64 emakumeak.

Denak saiatzen dira ahalik eta denbora gehiagoz autonomo izaten, beren etxeetan bizitzen, egoitzetara edo senideen etxeetara jo behar gabe. Are gehiago emakumeak. Gure lana da desira hori ahalik eta modurik egokienean betetzea. Sarri sumatzen dugu ez dagoe-la familiako sarerik, edo sarea ez dela behar bezain hurbila. Beraz, pertsona asko bakarrik daude edo ia bakarrik. Eta ohartzen gara pertsona horiek gabeziak dituztela nutrizio aldetik. Abian jarri genuen jantokiko zerbitzuarekin, erantzuna eman nahi diegu bi beharrian horiei.

Orain, taxi-zerbitzu bat presatzen ari gara, adinekoak edo mugitzeko arazoak dituztenak zerbitzu publikoetara gerturatzeko, edo bankuko tramiteak eta bestelakoak egiteko. Behar diren kudeaketak egin ditugu, Durangok ibilgailu egokitua izan dezan, gainerako taxiekin bezala, zerbitzu hori eskaintzeko. Hedadura gehiagoko udalerrien esperientzia hurbilak ditugu, landa-auzoak erdigunera hurbiltzeko egindako saioak.

Horrez gain, psikomotritzitateko tailerrak eraman ditugu auzoetara. Eta, aldizka, bisita egiten diegu gure adinekoei, haien etxeetan suteen detektagailuak jartzeko. Gainera, horrek aukera ematen digu beste beharrian batzuk aurkitzeko, eta horiei ere erantzuna ematen saiatzen gara. Adi egoten gara etengabe, haien ongizatea zaintzen, gure adinekoak asko inporta zaizkigulako.

## Durangaldea asteen

### Eneko Atxak ekoizle artisauekin egiten duen lana saritu dute Madrid Fusioen

**Zornotza** • Bere jatetxeen artean bost Michelin izar batzen dituen Eneko Atxa zornotzarrak Urteko Sukaldariaren saria jaso du Madrid Fusio jaialdian. Bere ibilbideagatik ez ezik, ingurumenaren alde eta ekoizle artisauekin egiten duen lanagatik ere saritu dute. Saria jasotzeaz gainera, The Best Farmers proiektua aurkeztu du Atxak, Xabi Uribe Etxebarriagaz batera.

### "Ekintzaz eta mobilizazioz beteriko aroa" iragarri du Durangairea plataformak

**Durango** • Erakundeen geldotasun eta pasibotasunaren aurrean, Airearen Kalitatearen Aldeko plataformak aro berri bat hasiko duela iragarri du. "Ekintzaz eta mobilizazioz beteriko aro berri bat" izango dela azaldu dute prentsa oharrean. Durangairea plataformaren helburua eskualdeko airearen kalitatea hobetzea da eta, horretarako, ezinbestekoa deritzote eskualdean dauden erakundeekin eta erakunde eskudunekin elkarlanean jardutea.

### Abadiñoko gazteek eta Geu Be elkarteko kideek taloak egingo dituzte hilaren 9an

**Abadiño** • Otsailaren 9an Abadiñoko gazteek eta Geu Be elkarteko kideek taloak egingo dituzte Muntzaratzeko aterpean, 16:00etatik 20:00etara. Katalamixon aisialdi elkarteak eta Abadiñoko Udalak antolatu duten ekintza honen asmoa herriko gazteek eta Geu Be elkarteko kideek arratsalde bat elkarregaz igarotzea eta gazteek izan ditzaketan aurreiritziak "haustea" dela jakitera eman dute ekimenaren bultzatzaileek.

## Iritzia

ASTEKARIA@ANBOTO.ORG • ASTEARTEA 17:00AK ARTEKO EPEA

### Eta 13 urteren ostean, Atxondok AHT gabe jarraitzen du!

2019ko urtarrilaren 18an *El Correo* egunkariak argitaratu zuenez, badirudi Atxondo-Abadiño tarteko AHTaren obrak bigarren aldiz lizitatu dituela Espainiako Gobernuak. Esanguratsua egin zait *El Correo* dioena: "A mediados de 2015, la obra se adjudicó, pero no pudo ni arrancar porque (...) EH Bildu, con el poder municipal en la zona, puso todos los obstáculos posibles". Harro egotekoa da udalak honelako lorpenak izatea. Zorionak, hain txikia izanda erraldoi baten kontra egindako lanak aitortza merezi du.

Hauteskundeek iragarpen hauek dakartzate, baina ez dirudi ez Eusko Jaurlaritzaren ezta Espainiako Gobernuaren aurrekontuek ere ibilbide luzerik izango dutenik. Ikusiko dugu zertan gauzatzen den eta nondik finantzatzeko aukera izango duten diru xahuketa hau.

AHTaren aurkako borroka 2006. urtean hasi zen gure herrian, *Atxondok AHTri ez!* esanez. Oraindik frontoian dago orduko esku famatua, AHTa gelditzea irudikatzen duena.

Esku askok batera gelditu dute AHTa: mobilizazioak antolatu dituztenen eskuek, herri galdeketa posible egin zutenen eskuek, herri galdeketa parte hartu zuten herritarren esku horiek guztiek, oztupoak jartzen aritu diren lur jabeen eskuek, protestetan parte hartu dutenen eskuek, txapak paparrean jarri zituztenen eskuek... Guztion artean, 2019ra arte AHT gabe heldu gara.

Atxondo izan da AHTaren obrak hasi ez diren herri bakarrenetarikoa. AHTa atzeratzea AHTa gelditzeko aukerak zabaltzea da. Segi dezagun eskuak elkar biltzen, etorkizuna gu denon eskuetan dago!

### ONINTZE OLEAGA SOLAGUREN • ATXONDARRA ETA BIZKAIKO BATZAR NAGUSIETAKO BATZARKIDEA

#### Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9, - IURRETA • Izen-abizenak • telefona • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOToren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarreak barne).

**ALDEKOA-OTALORA** iturgintza  
ITURGINTZA - BEROGINTZA - AIREA - GASA  
MANTENIMENDU INDUSTRIALA  
info@aldekoaotalora.com - 692 859 779  
Zubiaurre, 8 IURRETA - 946 202 768  
Ind. Arzubia - Pab. 13-14 ABADIÑO - 944 071 791

Bulegorako zigiluak  
Fotolitoak  
**Betikoak**  
flexografía  
946 202 241  
Bixente Kapanaga, 9  
48215 IURRETA

ATXONDOKO UDALA  
**HERRI BATZARRA**  
Udal aurrekontua 2019  
azalpena eta ekarpenak  
Otsailak 6, eguaztena, 19:00etan / udaletxean

## Pinpilipussies + MoonShakers

KONTZERTUA

ELORRIO : Otsailak 1

### Garage eta rock gaua AteneOn

Bartzelonan bizi den Ane Barcena durangarrak Raquel Paguesegaz sortutako proiektu musikala da Pinpilipussies. Joan zen urrian Durangon izan

ziren, eta gaur Arriolako Ateneon entzuteko aukera egongo da. Moldy Peaches, Bikini Kill eta Courtney Barnetten eragina dutela aipatu dute, eta garage,

rock, pop, punk... berbak erabili dituzte euren musika definitzeko. Kontzertua 22:30ean hasiko dute Arriolako Ateneoan.

Bilboko MonnShakers taldeak ere joko du. Psikodelia, garage, surf eta punk-rock doinuak lantzen dituen rock banda da.



## Abadiñon elikagaiak batuko dituzte, saharar errefuxiatuei bidaltzeko

**ELKARTASUNA** | Datozen egunetan, Abadiñoko Eroski saltoki handian elikagaiak batuko dituzte Tindufeko (Aljeria) saharar errefuxiatuen kanpamentuetara

bidaltzeko. Rio de Oro elkarteak antolatutako Elkartasun Karabaren barrukoa da ekimena.

Lekaleak, arroza, pasta, sardinak eta atuna oliotan, azukrea

eta konpresak behar dituzte, Rio de Oroko ordezkariak jakinarazi dutenez, eta kanpainagaz bat egitera animatu gura dituzte herritarrak. Asteburu honetan ez ezik, hilaren 8an eta 9an ere egongo dira Rio de Oroko Eroskin, informazioa eman eta parte hartzera animatzen. Durangoko Alde Zaharreko Eroskin ere batuko dituzte elikagaiak gaur hasi eta otsailaren 11ra bitartean.

### Otsailaren 1ean

**ABADIÑO izen-ematea Abañoako Gaztieki! Geu Be elkarreagaz elkartrukea**, otsailaren 9an, 16:00etatik 20:00etara, Muntzaratzeko aterpean. Izena emateko azken eguna: otsailaren 1a, Udal Mediatekan edo Errota kultur etxean.

**BERRIZ erakusketa 'Pisuak eta neurriak'**, 18:30etik 20:30era, barikuan, Berrizko Kultur Etxean. Otsailaren 28ra arte. Asteburuetan ere zabalik, kultur jardueren ordutegian.

**DURANGO lehiaketa Pub Quiz**, 21:30ean, Plateruenean.

**DURANGO hitzaldia 'Eraginkortasun energetikoa eraikuntzan' (Energiaren Euskal Erakundea)**, 11:30ean, Landako Gunean. Berdeago Azoka.

**DURANGO mahai-ingurua 'Birziklatutako materialaren erabilera eraikuntzan, Euskadin emandako hainbat adibide'**. Ihobek gidatutako mahai-ingurua, 17:00etatik 19:00etara, Landako Gunean. Berdeago Azoka.

**DURANGO formakuntza Zaindu, mendekotasuna duten senide jagoleentzako laguntza zerbizua**. Urteko programa. Informazioa: 94 603 00 46 eta 94 620 05 46 telefono zenbakietan, eta, honako e-mailetan: [zaindu.mdurango@bizkaia.org](mailto:zaindu.mdurango@bizkaia.org).

**IURRETA aurkezpena Joseba Sarrionandiaren poemen antologiaren aurkezpena**, 19:00etan, Herri Bibliotekan.

**ZALDIBAR jolasak 'Mahai jolasen arratsaldeak'**, liburutegian.



ANBOTOk agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi [agenda@anboto.org](mailto:agenda@anboto.org) helbidera edo deitu **946 232 523** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.

## Berdeago Azoka zabaldu dute Landakon

**INGURUMENA** | Gaur zabaldu ditu ateak ingurumen iraunkortasunaren euskal azokak: Berdeagok. Zazpigarren edizioa du aurten eta asteburu bitan egingo da. 40 berbaldi eta tailer eskainiko ditu. Berdeago Energy izango da asteburu honetan, eta Berdeago Nature 9an eta 10ean. Nobedadeen artean,

autoen erabilera konpartituaz eta eraikinetan ezartzen diren eolikoez jardungo dute Energy azokan. Nature azokan, moda jasangarriaren desfilea egin eta sukaldaritza ikuskizuna eskainiko dute. Plateruenak hartuko duen Film Berdea gunean, *Dantza* pelikula eta Kepa Aceroren *It's not only* ikusi ahalko dira.



### Otsailaren 2an

**DURANGO hitzaldia**  
**'Eguzkia energia termikoa: instalazio motak' (Lea-Artibai ikastetxea)**, 13:30ean, Landako Gunean. Berdeago Azoka.  
**'Ibilgailu elektronikoa mugikortasun jasangarriaren ardatz gisa' (Auve)**, 17:00etan.

**DURANGO antzerkia**  
**'Roman eta Julieta' (Borobil antzerki taldea)**, 20:00etan, San Agustin kulturgunean.

**ELORRIO kirola**  
**Bizkaiko Xake Ligako neurketa bi**, 16:00etan, Kirol Etxean. Zaldi Baltza xake taldeak antolatuta.

**ELORRIO deialdia**  
**Martxoaren 8a prestatzeko batzarra, herriko emakume guztiei irekia**, 17:00etan, Iturri kultur etxean. Euskal Herriko Mugimendu Feministak antolatuta.

**ELORRIO koplak**  
**Santa Ageda koplak**, 18:00etan, Gernikako Arbola plazan. Iturizoroko elkarteak antolatuta.

**MAÑARIA koplak**  
**Santa Ageda koplak**, 08:30ean, plazan. Batutako dirua Hamadako Izarrak elkartearentzat izango da.

### Otsailaren 3an

**DURANGO hitzaldia**  
**'Eraginkortasun energetikoa, gastuaren murrizketa eta led argiztapenera aldaketa debalde izatearen arrazoiak' (Electro Ahorro 2000)**, 12:30ean, Landako Gunean. Berdeago Azoka.

**ELORRIO kirola**  
**Bizkaiko Foru Aldundiaren Eskolarteko Xake Txapelketa**, 09:30ean, Kiroldegiko frontoian. Saillkapen faseko lehenengo txapelketa. Zaldi Baltza xake taldeak antolatuta.

### Otsailaren 5ean

**DURANGO musika**  
**Musika Entzunaldien Zikloa**, 19:00etatik 20:30era, Arte eta Historia Museoa. Otsailaren 5ean hasita. Ordu eta erdiko zortzi saio. Izena emateko: [museo@durango.eus](mailto:museo@durango.eus).

**DURANGO musika**  
**'Andrea Bocelli: Intimissimi on ice' musika eta balleta HD-an**, 20:00etan, Zugaza Zineman.

### Otsailaren 7an

**DURANGO hitzaldia**  
**'Osasungintza eta euskara. Ikasketetatik lanerako ibilbidea'**, 19:00etan, Plateruenean.

	<b>Roman eta Julieta</b> Borobil antzerki taldea <b>Otsailak 2, zapatua</b> 20:00etan
	<b>Elisa y Marcela</b> A Panadaria <b>Otsailak 16, zapatua</b> 20:00etan
	<b>Oceanus</b> Baraka teatro <b>Otsailak 17, domeka</b> 12:00 / 17:30 / 18:30
	<b>Babesleku arrotzak eta animalia bakartien hotsak</b> Rubik Theater <b>Otsailak 24, domeka - 19:00etan</b>

San Agustin KULTUR GUNEA  
DURANGO UDALA

Sanagustinalde, 12  
Tel.: 946 030 021  
[sanagustin@durango.eus](mailto:sanagustin@durango.eus)

**'Zazpi senideko' (Axuti)**  
20:15ean  
**Zornotza Aretoan**  
Otsailaren 1ean

### Otsailaren 13an

**DURANGO irteera**  
**Adinekoentzat kultur irteera: Euskararen Etxea**, 15:30ean, Durangoko tren geltokian. Doan. Izena eman behar da: 94 465 74 51 / [adintek@durango.es](mailto:adintek@durango.es).

### Martxoaren 3ra arte

**DURANGO erakusketa**  
**'Bay Sala (1913-1995)**, Durangoko Arte eta Historia Museoa.

### Martxoaren 8tik 10era

**DURANGALDEA irteera**  
**Eski irteera Formigalera**. Izena emateko, martxoaren 1era arte: [alluizmendialdea@gmail.com](mailto:alluizmendialdea@gmail.com). Abadiñoko Alluiz eta lurretako Zaldai mendi taldeek antolatuta.

## Zinea

**:: Berriz KULTUR ETXEA**  
· **Asterix, edabe magikoaren sekretua**  
barikua 1: 18:15  
domeka 4: 17:00

**:: Durango ZUGAZA**  
· **Bajo el mismo techo**  
barikua 1: 19:30/22:00  
zapatua 2: 16:30/18:30/20:30/22:30  
domeka 3: 16:30/19:00/21:00  
astelehena 4: 18:30/21:00  
martitzena 5: 20:00  
eguaztena 6: 20:00  
· **Green Book**  
barikua 1: 19:30/22:00  
zapatua 2: 19:30/22:30  
domeka 3: 18:30/21:00  
astelehena 4: 18:30/21:00  
martitzena 5: 20:00  
eguaztena 6: 20:00  
· **Dantza**  
barikua 1: 19:30/22:00  
zapatua 2: 18:30/20:30  
domeka 3: 19:00/21:00  
astelehena 4: 18:30/21:00  
eguaztena 6: 20:00

· **Dragon Ball Super: Broly**  
zapatua 2: 16:30 (gaztelaraz) / 17:15 (euskaraz)  
domeka 3: 16:30 (euskaraz eta gaztelaraz)

**:: Elorrio ARRIOLA**  
· **La Favorita**  
zapatua 2: 22:00  
domeka 3: 20:00  
astelehena 4: 20:00  
· **Spiderman. Un nuevo universo**  
domeka 3: 17:00

**:: Zornotza ARETOA**  
· **The Old Man & The Gun**  
zapatua 2: 19:30/22:00  
domeka 3: 20:00  
astelehena 4: 20:15  
· **Los Lunis y el libro magico**  
zapatua 2: 17:00  
domeka 3: 17:00



**Sara Estevez Eguskiza**  
Erizaina eta argazkizalea

**Zornotza | 1993**

## “2015ean erosi nuen lehenbiziko reflex kamera, eta niretzat aurkikuntza bat izan da argazkilaritza”

Azken urte bietan egindako bidaietan ateratako argazkiekin erakusketa jarri du Sara Estevezek Zornotzako Pozus tabernan. Europako eta Afrikako hainbat herrialdeetako argazkiek osatzen dute bilduma berezia.

**ARGAZKILARITZA • ARITZ MALDONADO**  
Erizaina ofizioz, argazkiak ateratzea eta gozogintza ditu afizio nagusi Sara Estevez zornotzarrak. Makina bat kontzertutan argazkiak ateratzen ibili ostean, bidaietako argazkietan espezializatu da azken sasoiari. 2017an Zornotzako Fermin Areitio lehiaketa irabazi zuen.

nintzen, batez ere Mocker's taldearenetara, eta argazkiak ateratzen nitzkien. Last Fair Deal eta The Highlights taldeei ere atera dizkiet argazkiak.

**Eta nolatan eman zenuen aldaketa?**  
Kamera berria erosi nuen, Eskoziara joan nintzen eta hor hasi zen gutzia.

**Zeren arabera dira argazkiak?**  
Bidaietara joan aurretik, beste argazkilaria batzuen argazkiei begira ibiltzen naiz, zeri begiratu jakiteko, besteak beste. Ez naiz oso teknikoa; hala ere, argazkiak atera, eta azken ukituak egiten dizkiet gero. Beste batzuek ukitu gehiago egiten dizkiete.

**Eta baldintzatzen dizu nora joan oporretan?**

Bai. Natura duten lekuetara bidaiatzen saiatzen naiz, hiriguneetatik kanpo. Hiriguneetara ere joaten naiz, baina han oso argazki gutxi ateratzen ditut.

**Noiz hasi zinen argazkiak ateratzen?**  
2015ean nire lehenbiziko reflex kamera erosi nuen. Nire kontura ikasten hasi nintzen, argazkiak ateratzen eta bideoak ikusten, eta, horren ostean, Zornotzako Argazkilaria Elkartearen sartu nintzen. Lokal berri bat alokatu genuen, estudioko argazkiak egiteko, eta aurkizkuntza bat izan zen niretzat. Orain kamera berria dut, eta oso gustura nago horregaz.

**Zein izango da hurrengo bidai?**

Orain, otsailean, Norvegiara joan gura dut, Lofoten irletara. Data zailak dira bidai-lagunak aurkitzeko, baina hauxe da sasoi egokia aurora borealen argazkiak egiteko. Iaz, sasoi honetan joan nintzen Islandiara, eta bakarrik joan behar izan nuen. Iparraldeko herrialdeak asko gustatzen zaizkit. Garestiak dira, baina gustuko ditut.

**Afizioa ofizio bilakatzea gustatuko litzazuke?**

Oso zaila dela uste dut. Gainera, fronte asko ditut zabalik: erizaintza, argazkilaritza eta gozogintza. Datorren urtean, Kanadara joan gura dut, gozogintza ikastaro bat egitera, eta, bide batez, argazkiak egiteko baliatu gura dut bidai.

**Zer ikusi daiteke erakusketan?**

Hainbat bidaietan egindako argazkiak dira. Eskoziako, Islandiako, Alpeetako (Italia eta Austria aldeetakoak), Tanzaniako eta Zanzibarreko argazkiek osatzen dute bilduma.

“**Europako eta Afrikako hainbat herrialdeetara eginiko bidaietako argazkiak egongo dira ikusgai erakusketan**”

“**Kontzertu askotara joan izan naiz argazkiak ateratzen; orain gurago ditut bidaietako argazkiak**”

**Nondik irten da erakusketa egiteko aukera?**

Taberna honetan lanean egon nintzen, sukaldean, eta hortik irten zen ideia. Bazuten nire argazkizaleen berri. Azaroan Zanzibarrera joan nintzen, GKE bategaz, eta Josebak [Tabernako jabea] gogoia du hara joateko. Beraz, berak proposatu zidan erakusketa jartzea. Bidai bateko argazkiekin egitea zen asmoa, baina hainbat bidaietakoak bildu ditut.

**Zeintzuk dira gustuko dituzun argazkiak?**

Kontzertuetakoak eta kirol ekintzetakoak. Orain, batez ere, paisaiei buruzkoak ateratzea gustatzen zait, bidaietan. Sasoi batean, musika kontzertu askotara joaten

### Gure familien ahotsa

“**Gure seme-alabak gustura datoz, eta, gu pozik gaude bizitzarako hezten dituztelako**”

Aitor Sarrionandia      Olatz Muguerza      Maria Oñate

**Zergatik aukeratu zenuten Landako Eskola?**

Euskal eskola publikoaren aldeko apustua egin genuen, denona eta denontzako, anitza eta inklusiboa den hezkuntza baten aldekoa. Landako Eskolako aniztasunak gure seme-alabei balio garrantzitsuak garatzen laguntzen die. Gainera, apustu handia egiten da euskara eta euskal kultura zabaltzearen alde, eleaniztasunaren barruan. Horretaz gain, Amara Berri Sistema ezagutu genuen eta hezkuntza sistema erabat proposa iruditu zitzaigun.

**Zerk erakartzen dizue gehien?**

Cesar Bonaren *Las escuelas que cambian el mundo* liburuan aipatzen den moduan, mundua aldatzen duen sistema da Amara Berri. Horrez gain, 2015ean *Changemaker* saria ere irabazi zuen. Guretzako garrantzitsua da, berritzailea izanik, 40 urteko eskarmentua duela eta emaitza onak dituela jakiteak.

**Nola balioetsiko zenukete orain arte bizitako esperientzia?**

Ezin hobea! Gauza asko dira erakargarriak Landako Eskolan. Adibidez, matematika lantzeko material manipulati- boak erabiltzen dituzte maila guztietan, 3 urtetik aurrera antzerkia ere egiten dute, 5 urtetik aurrera esperimenduak egiten dituzte,...

Bestetik, konpetentzietan oinarritzen den proiektua dela, Haur Hezkuntzatik hasita 6. mailara arte. Ikaslea dela benetako protagonista eta geletako antolamenduak aukera ematen dio umeari izateko, bizitzeko eta ikasteko. Eskolara bisita egin genuenean, eskolako hedabideek txundituta utzi gintuzten. 1. mailatik aurrera ikasleek eramaten dituzte aurrera irratia, telebisita, bloga eta aldizkaria.

Horrez gain, baliabideak eta azpiegiturak ezin hobeak dira. Esaterako, psikomotrizitate gela erkidegoko onenarikoa da, izan ere, Bergarako Psikomotrizitate eskolakoek bertan egin izan dituzte Bernard Aucouturierrek emandako formazioak. Gure seme-alabak gustura datoz, eta gu pozik gaude, bizitzarako hezten dituztelako.

**Zer esango zeniekete hasi berria den aurrematrikula egin behar duten gurasoei?**

Datozela Landako Eskolara eta ikus dezatela beraien begiekin nolako kalitatearekin lan egiten den erabaki bat hartu aurretik. Ate irekiak otsailaren 2an eta 6an izango dira. Herri euskalduna izateko, euskal eskola publikoa ezinbestekoa da!

# Egun biko jaialdia izango da aurten 40 Minutu Rock jaialdia, bosgarren urteurrena ospatzeko

Publiko helduago batengana heltzeko asmoz, barikurako emanaldi bi antolatu dituzte; hilaren 22an eta 23an izango dira kontzertuak



Otsailaren 22an parte hartuko duten artistek eta hainbat elkartetako kideek aurkezpena egin zuten eguaztenean Plateruenean.

## MUSIKA • ARITZ MALDONADO

Bosgarren urteurrena ospatzeko, kultur ekitaldi berezia antolatu gura izan du 40 Minutu Rock elkartean jaialdiak. *Elkarrekin arnasteko ordua da* leloagaz, egun biko jaialdia antolatu dute otsailaren 22rako eta 23rako.

Otsailaren 22ko egitaraua Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoan *Elkartasun Dantzaldia* ikuskizunagaz hasiko da. Emanaldia 18:30ean hasiko da, Landako Gunean, eta sarrerak 5 euroan erosi ahalko dira. Horren ostean, Gotzon Barandia-

ranek koordinatu duen *Etixerako Giltzak* ikuskizunaz gozatzeko aukera egongo da. Durangaldeko hainbat lagunek parte hartuko dute bertan: Ane Gabilondo eta Urizarri Atxotegi dantzari durangarrek, Mikel Urdangarin

**'Etixerako Giltzak' ikuskizunean eskualdeko hainbat artistek parte hartuko dute**

musikari zornotzarrak eta Miren Amuriza bertsolari berriztarrak egingo dute narratzaile lana Ines Osinaga eta Nerea Ibarzabalegaz batera. 22:00etan hasiko da ikuskizuna eta sarrerak bost euroan erosi ahalko dira.

**Otsailaren 23ko jaialdian Zirkirik Bez! talde zornotzarrak kontzertua eskainiko du**

## Askotariko doinuak

Zapatuan, ostera, ohiko musika jaialdi formatura itzuliko da 40 Minutu Rock. Rocka ez ezik, bes-telako doinuak ere izango ditu protagonista bosgarren edizio honetarako. Horrela, 10:30ean hasita, denetarikoko taldeek joko dute. Besteak beste, Hesian, Zea Mays eta Esne Beltza talde klasikoek, eta Nøgen eta Bad Sound taldeek jarriko dute dantzan Landako Gunea otsailaren 23an. IRAK, Gorpuzkingzek eta Gorka Suaiak hip hop doinuak eramango dituzte elkartean jaialdira.

## 14.000 lagun baino gehiago igaro dira Durangoko museotik azken urtean

### MUSEOA • A.M.

Urtarrilaren 25ean urtea bete da Durangoko Arte eta Historia Museoa berrinauguratu zutela. Azken urtean 14.000 lagunetik gora igaro dira bertatik. Hamai-ka erakusketa, 37 bisita gidatu, 22 tailer eta bestelako 23 ekintza antolatu dituzte azken urte honetan. Besteak beste, Bilboko Arte Ederren Museoako 37 grabatu erakutsi dituzte 2018an, *Margolan Itzuliak* erakusketaren baitan. *Editore Mozorrotua* erakusketa ere ikusgai egon zen ekainean, Daniel Tamayok berriaz erakusketarako eginiko obra batez, eta Durangaldeko hamasei emakumeren obrak

**Martxoaren 3ra bitartean, 'Bay Sala' (1913-1995) erakusketa dago ikusgai museon**

erakusten zituen *Hausnarketak* erakusketak ere harrera bikaina eduki zuen.

Orain, martxoaren 3ra bitartean, *Bay Sala (1913-1995)* erakusketa dago ikusgai bertan. Bay Sala Logroñon (Espainia) jaio zen, baina 1918. urtean, Bilbora lekualdatu zen. Bertako arte eta ofizioen eskolan ikasi zuen; bere lanak hainbat museotan daude; besteak beste, Bilboko Arte Ederren Museoan, Donostiako San Telmon eta Frantziako Musée de l'Illon. 1991n, Bizkaiko Arte Elkarteko ohorezko kide izendatu zuten.

# Euskal dantzak berriro plazetara ateratzeko asmoz, ekimenak antolatu ditu Udaberrik

Dantzaldiak antolatu ditu hileko lehenengo zapatu eguerditarako, Zornotzako udaletxeko plazan

## DANTZAK • A.M.

50. urteurrenako biharamuna pasatuta, euskal dantzak kalera ateratzeko erronka berria ezarri diote Udaberri dantza taldeko kideek euren buruei. Bilbo eredu hartuta,

Zornotzako udaletxeko plazan dantzatzeko deia zabaldu dute. "Bilbon, Santiago plazan biltzen dira dantzazaleak, dantzan jakin zein ez, dantza egiteko. Guk antzerako zerbait egin gura dugu", azaldu dute bertako kideek.

Hileko lehenengo zapatuan biltzen dira abenduaz gerostik. Otsailaren 2an, 13:15ean batuko dira.

**Lehenengo, ikasi**  
Ekimenaren helburua herritarrak

**Dantza taldekoen esanetan, lehenengo deialdi biak nahiko arrakastatsuak izan dira**

dantzan jartzea da, baina dantzan ez dakitenei ere jartzen diete arreta Udaberrikoek. Horrela, lehenengo hogeita hamar minutuetan, ikasteko denbora uzten dute.



Urtarrileko dantzaldian ateratako argazkia.

**50 urte bete zituen iaz Zornotzako Udaberri dantza taldeak, ospakizunetan murgilduta**

# 'Roman eta Julieta': itzali al dezake familiak maitasunak piztu duena?

Zapatuan, hilak 2, antzeztuko dute 'Roman eta Julieta', San Agustinen, 20:00etan



Jose Ramon Soroiz eta Tanya de la Cruz antzeztanaren une batean. MIKEL ARANBURU.

## ANTZERKIA • A.M.

Bere garaian, William Shakespearek nerabe biren arteko maitasun istorio bat idatzi zuen, eta Borobil antzerki taldeko Iñaki Rikartek "ezinezkoa" den beste maitasun istorio bati buruz idatzi du *Roman eta Julieta* antzeztanarako. Jose Ramon Soroiz antzezlea da 'Roman', bizitzaren amaieran dagoen eta fisikoki ezindua den gizona. Tanya de la Cruz da 'Julieta', Roman

**Jose Ramon Soroiz eta Tanya de la Cruz aktoreak dira obrako protagonista nagusiak**

**Publikoak aurreiritzi eta konplexuen inguruan hausnartzea gura du Borobil antzerki taldeak**

baino hogeitaz urte gazteagoa den etorkina, paperik bakoa. Romanen seme-alabak bien artean piztu den maitasun garra amatatzen saiatuko dira. Ainhoa Aierbe, Asier Sota eta Alazne Etxeberria dira horiek interpretatzen dituzten aktoreak. Istoria umore beltz dosi handiekin kontatuko da. Anartz Zuazuk zuzenduko du obra.

## Gai librea

Ainhoa Urien Telletxea  
Ikaslea



### Leihoak eta ispiluak

Mundua ezagutu beharrekin obsesionatzen gara eta urrunera egiten ditugu bidaiak, zenbat eta urrunago orduan eta hobeto. Planetaren bazter askotan lur hartu duenak bereganatzen du, sarri umiltasunaren izenean, handiki posizio bat; beste batzuetan, gehiegi bidaiatu ez duen horrek igotzen du aldarera. Kontua da aitortzen zaiola edo bere egiten duela mundudun izatearen pedigria.

Zenbat leiho daude zure etxean? Kontatu, kontatu!

Zenbat ispilu daude zure etxean? Bat, bi, hiru?

Nahi bestetan segi hegazkina hartzen urruneko hirietara, lekutako herrialdeetara, mapa mundian agertzen ez diren lur-eremuetara. Gauza batek ez du bestea oztopena.

Leihoek mundua ezagutzeko balio dute, eta ispiluek geure burua ezagutzeko. Dena dela, leihoak ere ispiluak dira, eta ispiluak leihoak. Hau da, mundua ezagutzen dugunean geure burua ezagutzen dugu gehien; eta geure buruak ispiluan islatzen direnean ere, mundu zati bat behintzat ezagutzen dugu.

Begiratu orain etxeko leihoak eta ezagutuko duzu mundua; zoaz gertuen duzun ispilura eta ezagutuko duzu zeure burua. Tartekatuz leihoak eta ispiluak.

Egin dezakezu ariketa etxean, baina komeni da noizean behin hegazkin bat hartzea ere, han ere badaude leihoak eta ispiluak. Hori bai, ez pentsa etxekoak baino garbiago egongo direnik derrigorrez, eta bidaiatik bueltatzen zarenean, kontuan hartu hemen geratu denak ere izan dituela leihoak eta ispiluak.

## Joseba Sarrionandiaren poemen antologia aurkeztuko dute lurretan


Otsailaren 1ean, barikuan, 'Es Morta La Poesia?' aurkeztuko dute lurretako herri bibliotekan, 19:00etan

### POESIA • A.M.

Idazle iurretarraren poemen antologiaren lehenengo aurkezpena bere sorterrian izango da, lurretan. Bertan aurkeztuko dute Pamiela eta Pol-len argitaletxeek euskaraz eta katalanez publikatu duten *Es Morta la Poesia?*. Aurkezpenean, Aina Munt Ojanguren itzultzailea berak itzuli ditu poemak katala-

nera-, Jose Angel Irigarai eta Victor Sunyol idalzeak eta Jexux Mai Lopez musikaria egongo dira.

Liburua crowdfunding bidez finantzatu zen, horretarako 4.500 euro baino gehiago bildu ostean. Aurretik, Pol-len argitaletxeak Joseba Sarrionandiaren *Moroak Gara Behelaino Artean?* eta *Ni Ez Naiz Hemengoa* itzuli zituen.



Joseba Sarrionandia.



Otsailaren 7an 19:00etan, AHOZTAR ZELAIETA bere azken liburua aurkezten izango dugu  
**"LA TRAMA DEL 4%"**

**hitz** artekalea, 23 durango  
946 810 776  
liburudenda info@hitzliburudenda.com

#aurkezpena

katerin ardoak  
iñaki uribe

25<sup>urte</sup> saltsan

Eguneko menuak - Asteburuetakoko menu bereziak  
Delicatessena - Ardotegia

KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427

saltsan.com

**Zure iragarkia jarri nahi duzu?**

publizitatea@anboto.org  
94 621 79 02

**anboto** komunikabideak





IURRETA

*Tellitu-n*

*3 logelatako  
6 etxebizitza*

*2 logelatako  
11 etxebizitza*

*Garajea eta  
trastelekua barne*



**ZARATE ELEXPE**  
ERAGILEAK

Kontsultatu beste aukerak

Tel.: 946 816 673  
[www.zarateyexpe.com](http://www.zarateyexpe.com)



**Olatz Areitio Aristorena**  
(1994, Durango)

**Nahia Larrinaga Petite**  
(2001, Durango)

Eibar futbol taldeko jokalaririk

## “Eibarrek aurten apustu sendoa egin du emakumeen taldeagaz igoera bilatzeko”

Bigarren Mailan igoeraren bila dabilen Eibar futbol klubeko jokalaririk dira Nahia Larrinaga eta Olatz Areitio

**FUTBOLA** • JOSEBA DERTEANO

**Biak gazte-gazterik batu ziren Eibar futbol klubera. Harrezkero, bederatzirte joan dira Olatz Areitioarentzat, eta taldeko kapitaina da orain. 24 urte besterik ez eta denetarik bizi izan du Eibarren: igoerak, jaitsierak... Nahia Larrinagak 17 urte ditu eta sarritan egoten da lehenengo taldeko deialdian. Apurka, bere bidea egiten dabil.**

**Eibarrek denboraldi konpletoa darara orain arte. Porrotik ez 16 partidutan. Espero zenutena baino hobeto zabiltzate?**

**Olatz Areitio:** Eibarrek aurten apustu sendoa egin du emakumeen taldeagaz. Fitxaketa asko egin dituzte goian ibiltzeko eta igoeraren bila joateko. Beraz, ondo ibiltzea espero genuen.

**Fitxaketak nondik etorri dira?**

**O.A.:** Euskal Herriko jokalaririk dira, batez ere. Real Sociedad klubeko lehenengo taldetik jokalaririk asko etorri dira. Bilbo inguruko beste batzuk, Iruñekoren bat... horietatik, A, eta japoniar bi!

**Hainbeste fitxaketa, garesti dago partiduetan minutuak izatea?**

**O.A.:** Lehenengo mailan arituta jokalaririk asko etorri dira eta, egia esan, aurreko urteetan baino zailagoa da jokatzeko, baina, nire kasuan, banabil jokatzeko.

**Nahia Larrinaga:** Lehenengo taldeagaz entrenatu eta, normalean, bigarren taldeagaz jokatzeko. Momentuz, partidu bi jokatu ditut lehenengo taldeagaz.

**Nagusiekin entrenatzeak laguntzen du jokalaririk moduan hobetzen?**

**N.L.:** Bai, dudarik barik. Beste erritmo eta intentsitate bat egoten da.

**Nahia, zu aurrelaria zara. Zelan zabiltza atearen aurrean?**

**N.L.:** Hamaika gol daramatzat denboraldi erdian. Alde horretatik, pozik nago.

**Aurrelaria goletik bizi da?**

**N.L.:** Apur bat, bai. Taldeari golak eman behar dizkiozula pentsatzen bizi zara. Azkenean, golen kontua boladaka joaten da sarritan, baina badaude beste modu batzuk ere taldeari laguntzeko.

**Olatz, zuk denetarik bizi izan duzu Eibarren: igoerak, jaitsierak... Kontaguz.**

**O.A.:** Gazteen taldean hasi nintzen, eta urte bi eman nituen han. Liga bat irabazi genuen. Orduan Eibar Superligan zebilen, Lehenengo Mailan, eta partidu baterako deialdian sartu ninduten. Gero, talde nagusia mailaz jaitsi, eta jokalaririk gehienak joan egin ziren. Orduan, liga irabazi genuen gazte horiek, kolpean, lehenengo taldera igo gintuzten. Bigarren Mailan eta batere es-

perientziarik barik... Gure intentsitatea, erritmoa eta ezagutza maila beste batzuk ziren. Urte horretan, azken-aurreko geratu eta Euskal Ligara jaitsi ginen. Urte bi eman genituen han. Zelanbait esanda, talde berri bat sortu genuen. Aurreneko denboraldian bigarren geratu eta hurrengo urtean Bigarren Mailara igo ginen. Lau urte daramatzagu maila honetan urterik urtera gero eta gorago geratzen.

**Ibilbide luze horretan momentu on bat eta txar bat bereizteko eskatuko banizu, zeintzuk esango zenituzke?**

**O.A.:** Bigarren Mailara igo ginen unea oso ona izan zen. Maila galdu,

“**Emakumeen futboleko bisibilitatea gehiago landu daiteke. Jendeak ezagutzen ez bagaitu, ez da ikustera etorriko**”

“**Unben ez dago tokirik, eta Berrizen entrenatzen gara; ez da erraza, ez guretzat, ez Berrizentzat**”

